

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	70 - KIROLOGI
Atala:	7001 - KIROLOGI
Programa:	010 - Kirologi Fundazioa
Funtzionala:	341 - Kirolaren sustapena

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Sustatzea Gipuzkoako taldeek eta kirolariek goi errendimenduko kirolean parte har dezaten.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Gipuzkoan 1.142 klub inguru daude inskribatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan (Iturria: Eusko Jaurlaritzak) eta 81.987 lizentzia federatu (Iturria: KIROLDATA). Horrek kirol sare oso garrantzitsua dakar 720.458 biztanle baino ez dituen lurralde batean (Iturria: Eustat). Parte hartze kolektiboko modalitateetan (21), Gipuzkoak 32 talde ditu (Kirologi iturria), eta horiek profesionalak ez diren bi maila gorenetan lehiatzen dira estatu mailan, bai emakumezkoetan (14), gizonezkoetan (14), mistoetan (3) eta egokituetan (1), eta horietako hiruk Europako lehiaketetan parte hartu dute. Banaka parte hartzeko modalitateetan (33) errendimendu handiko kirolari asko daude (144 kirolari Kirologi iturria), eta emaitza bikainak lortu dituzte, bai estatuan (78 kirolari), bai nazioartean (66 kirolari), emakumezkoen, gizonezkoen eta egokitutako kategorietan.

Egoera horrek bilakaera izan du 2003-2004 denboralditik, eta, termino absolutuetan, Gipuzkoa estatuko lehen hamar lurraldeen artean dago, eta biztanleriari dagokionez, berriz, lehen hiruren artean. Hala ere, adierazi behar da Covid-19ren pandemia globalaren ondorioak lehiaketen eta kirolarien prestakuntzaren garapen normala atzeratu eta zaildu duela.

Beharraren eboluzioa:

Egoeraren diagnostikoari esker, fundazioari eusteko lankidetzak publiko-pribatua sustatu behar dela berresten da, empresa erantzukizunaren ikuspegitik, zeinak hain emaitza onak ematen baititu bere bilakaeran eta, ondorioz, errendimendu handiko Gipuzkoako kirolean. Kirologi Fundazioak garatutako jardueren tratamendu fiskala funtsezkoa da arlo horretan.

Diagnostikoaren bilakaera horrek ere kirolariei laguntzen jarraitzeko beharra adierazten du, orain bateratu egin baita fisioterapia, nutrizio, psikologia eta prestakuntza fisikoko zerbitzuak dituzten kirolariei Laguntzeko Programan. Ez dira ahaztu behar 2021erako udako olinpiadak eta 2022rako negukoak.

Bestetik, Kirologi Fundazioak estatuko eta nazioarteko lehiaketen esparruan taldeei eskaintzen dien egonkortasun ekonomikoa gizartearen eragin handia duen kirol emaitzen kontu batean laburbiltzen da. Fundaziotik babesletzaren arloko aholkularitzari eustea garrantzitsua da bere jardueraren garapenean.

Gipuzkoako Foru Aldundiko beste sail batzuekiko koordinazioa ezinbestekoa da arlo fiskalean eta berdintasunean, eta bi elementu horiek bat datoz fundazioak eskaintzen eta transmititzen dituen onura eta balioekin.

Azkenik, administrazio eta kirol eta gizarte eragile guztien ahalegina beharrezkoa izango da Covid-19ren pandemiak kirol sektorean eragindako egoera gainditzeko.

Nori zuzendua:

Gipuzkoako kirol taldeak, kirolariak eta populazioa, oro har, kirol errendimenduko lurralde eraginkor bateko hiritar gisara. Fundazioaren enpresa babesleak.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Taldeei lehiaketa-kategoria gorenetan eusteko diru laguntzak. Gipuzkoako kirolarientzako eta kirol teknikarientzako laguntza. Kirol modalitateen egituraketa. Babesleen fidelizazio kanpainak.

2. Garatu beharreko

Hitzarmenak egitea Fundazioaren jarduerak finantzatzeko dituzten erakunde publiko eta pribatuekin. Iritziak eta oinarriak prestatzea diru laguntzak eta laguntzak emateko. Lankidetzak hitzarmenak egitea babestuekin. Kirol modalitateen egituraketa planak. Publizitate kanpainak eta publizitate euskarriak.

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Kirol eredu bat errendimendu iraunkorrekia, kohesionatua, eta lurraldearekin sozialki eta ekonomikoki arduratsua. Gipuzkoako goi errendimenduko kirolean dituen posizionamendua eta irudia. Berdintasunezko kirol ereduak, generoari eta dibertsitate funtzionalari dagokienez.

Programaren arau esparrua:

Kirolgi Fundazioaren estatutuak.
14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolari eta haren garapenari buruzkoa.
9/2016 Legea, ekainaren 2koa, Euskadiko fundazioei eta horien garapenari buruzkoa.
15/2019 Dekretua, uztailaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzen eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duena.
Agindua, 2018ko apirilaren 12koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez zehazten eta onartzen baitira formatu digital edo telematikoko zenbait inprimaki, fundazioek eta onura publikoko elkarteek erabil ditzaten, urteko kontuak EAEko Fundazioen Babesletzari eta Onura Publikoko Elkartearen Babesletzari aurkezteko.
Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Araua, Irabazirik gabeko Entitateen Zerga Erregimen eta Mezenasgoaren Zerga Onurari buruzkoa (GAO. 2004-04-19).
Administrazio eta ekonomia/finantza alorretako legedi orokorra eta komuna.
Irabazi asmorik gabeko entitateentzako Kontuen Plan Orokorra.
Sektore publikoko fundazioei aplikagarri zaien araudi osagarria.


2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA

Urteko helburua: Gipuzkoako kirol egitura eta jarduera fisikoa bera indartzea, arreta berezia ipiniz osasunerako estrategiei, balioetan hezteari, berdintasunari eta talentua garatzeari.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2020-ko Aurreikuspena	2020-ko Errealak	Agintaldiko helburua
Gipuzkoako zenbat taldek hartzen dute parte estatu mailako 2 kirol kategorian gorenetan	Kopurua	0,00	32,00	33,00	34,00
Emakumeen kirolak jasotzen duen finantzaketa, kopuru osoarekin	Ehunekoak	52,83	50,00	50,94	50,00
Jarduera fisikoa erregularitasunez egiten ez duten pertsona helduak.	Ehunekoak	32,10	31,00	32,10	28,00

Joera


Gipuzkoako zenbat taldek hartzen dute parte estatu mailako 2 kirol kategoria gorenetan – Kopurua



Emakumeen kirolak jasotzen duen finantzaketa, kopuru osoarekiko – Ehunekoa



Jarduera fisikoa erregularitasunez egiten ez duten pertsona helduak. – Ehunekoa



Memoria

2020. urtearen hasiera itxaropentsua izan zen, Tokioko Olinpiadei begira, eta Gipuzkoako kirolarien parte hartzea oso handia izan zen. Martxoan, alarma egoeraren adierazpenarekin, Gipuzkoako kirol sistema asalatu egin zen eta ia erabat gelditu zen. Estatuan eta nazioartean, Covid-19 Mundialaren pandemiaren ondorioz, jarduera eta lehiaketa ia guztiak bertan behera geratu ziren.

Egoera horretan, Kiroldunaren Fundazioak taldeen eta errendimendu handiko kirolarien iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko erabakia hartu zuen.

Erabaki horrek empresa eta kirol sektorearen artean balioak partekatzeko ingurune egokia sortzen lagundu du, batez ere elkertasuna. Erakunde eta enpresa laguntzaileen erantzuna zabaldu egin da urtean zehar, eta aurreikusitako kredituaren % 67 estali da. Fundazioak 3.247.100,00 euroko negozio zifrarekin amaitu du urtea.

Kategoria goreneko taldeak 24 izan dira estatuko zein nazioarteko erreferentziazko kirol-modalitate nagusietan, lizentzia kopurua eta ezarpena kontuan hartuta. Datu hori oso garrantzitsua da Gipuzkoako tamaina eta biztanleria kontuan hartuz gero.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

Kirol talentuaren prestakuntza laguntzea, ziklo olinpikoari arreta berezia jarrita, eta errendimendu handiko kirolariei laguntza emateko zentro espezializatu bat antolatuta.



% 50,00



% 50,00

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
Jarduketa ildoak, guztira	3.378.981,00	3.247.100,00	27.500,00	
1.1 Ekintza				
Handitzea baliabide pribatuaren erakarpenean Gipuzkoako errendimenduko kirola finantzatzeko	34.485,00	7.625,00		50,00
1.2 Ekintza				
Bultzatzea Kiroldunaren marka Gipuzkoari lotuta egon dadin komunikabide sozialetan eta publizitate euskarrietan.	166.790,00	69.924,84		80,00
1.3 Ekintza				
Bermatzea finantzaketa esparru egonkor bat goi mailako taldeentzat, epe erdiko beren proiektuak planifika ditzaten.	2.357.208,00	2.451.208,80		100,00
1.4 Ekintza				
Prestatzea kirol modalitateen lurralde egituraketako proiektuak.	23.232,00	28.325,04		60,00



	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Aurreratze gradua
1.5 Ekintza Klubetako harrobiak indartzea gizarte oinarriarekin, egiturekin eta kalitatezko kudeaketarekin.	30.976,00	14.162,52		80,00
1.6 Ekintza Diru laguntzak ematea Gipuzkoan prestatutako goi errendimenduko kirolariei.	583.252,50	514.304,97		100,00
1.7 Ekintza Elkarlanean aritzea Gipuzkoako errendimenduko kirolarien prestakuntza akademiko eta bestelako zerbitzuetan.	30.000,00	30.000,00	27.500,00	100,00
1.8 Ekintza Aldeztea goi mailako kirolariak Gipuzkoako klubetara itzultzea edo bertan gelditzea.	43.725,00	37.585,38		100,00
1.9 Ekintza Hobekuntza koefizienteak ezartzea kirol egokituko modalitateetako errendimenduko taldeentzako diru laguntzetan.	21.862,50	18.792,69		100,00
1.10 Ekintza hobekuntza koefizienteak ezartzea emakumezkoen errendimenduko taldeentzako diru laguntzetan.	43.725,00	37.585,38		100,00
1.11 Ekintza Hobekuntza koefizienteak ezartzea errendimenduko kirolarientzako dirulaguntzetan	43.725,00	37.585,38		100,00

GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren eboluzioa:

Kirolgi Fundazioak Gipuzkoako errendimendu handiko kirolean egiten duen esku hartzearen esparruan, emakumezkoen eta gizonetzkoen kategorien arteko parekotasuna eztaba daezina da, aldaketa txikiekin bada ere. Baliabide ekonomikoaren eta kirolari onuradunen eta taldeen parekotasuna errealitate bat da. Hala ere, emakumeek kirol egituretan duten parte hartzea eta kirol-estamentuetan duten presentzia konpondu beharreko gabezia da oraindik, nahiz eta aurrerapen garrantzitsuak egin diren. Gaingitu gabeko gaia da, eta beharrezkoa da administrazioaren hainbat eremutatik esku hartzea. Emakumezkoen errugbi talde bat Ohorezko Mailara igotzea eta Kirolgi Fundazioak horretarako nazioarteko bi jokalar berreskuratu izana izan dira 2020ko nobedade nagusiak. Emakumeen eskubaloiko Erreginaren Kopa antolatzeak aukera ere aipatu behar da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izan dadin eta, zehazki, kirolean sexuaren arabera rolak eta estereotipoak desagerraraz daitezten.

Kuantifikazioa: 419.713,46 (% 12,93)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua	Esleitutako adierazlea
Ba 8. Erreferentzia gehiago eta bultzada-gaitasun handiagoa ematea Foru Aldundiari erantzunkidetasun alorrean.	(% 27,27)	Goi mailako kirolean emakume kirolari eta kirol talde erreferenteei laguntza eman	100,00	Berdintasuneko prestakuntza programan parte hartu duten kargu politikoen ehunekoa, sexuaren arabera banatuta. Langileen kudeaketaren esparruko foru langileen ehunekoa, sexuaren arabera banatuta, prestakuntza jaso dutenena kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren arloan.
In 9. Berdintasuneko kirol praktika, indarkeria sexistarik gabea, sustatzea.	(% 72,73)	In 9.1. Berdintasunean sentsibilizatzeko eta prestatzeko jarduerak antolatzea, Gipuzkoan eskola kirolarekin konprometitutako langileei eta gurasoei zuzenduta.	80,00	Indarkeria sexistaren gabeko berdintasuneko kirol jardunaren inguruan prestakuntza motaren bat jaso duten eskola kiroleko alorreko langileen kopurua. Berdintasunaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren alorrean kaudimen teknika eskatzen duten klausulen arabera kontratatutako entitateen ehunekoa. Indarkeria matxistaren prebentzioarekin zerikusia duten klausulak jasotzen dituzten garapenerako lankidetzarako hitzarmen, diru laguntza eta kontratuen ehunekoa.
		In 9.2. Berdintasun klausulak gehitzea eta gero aztertzea, bereziki kaudimen teknikoari eta gauzatzeak baldintzei buruzkoak, lurraldean kirol praktika sustatzeko diru laguntzen deialdietan eta sinatzen diren kontratuetan.	90,00	
		In 9.4. Sentsibilizatzeko kanpaina efikaz eta eraginkorrek egitea, berdintasuneko eta indarkeria sexistarik gabeko kirol praktika sustatzeko.	80,00	
		In 9.5. Berariazko programak abian jartzea, kirolean genero estereotipoak gaingitu eta neskak arlo horretan ahalduztzeko.	50,00	
		Prestakuntza ekimenetan berdintasun ikuspegia txertatu	90,00	

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren eboluzioa:

Kirolgi Fundazioaren barne eta kanpo komunikazioa bat dator Hizkuntza normalizaziorako irizpideekin. Kirolariek eta taldeekin sinatutako deialdien eta akordioen zeharkako elementua da. Kirol eragileen arteko harreman-hizkuntza euskara da, baina kirol jardunean garatzeak ingurune hobeak behar ditu benetako garapena eta ezarpena lortzeko. Ildo horretan, administrazio eta kirol eragile guztien lana handitu beharko litzateke.

Kuantifikazioa: 348.597,86 (% 10,74)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Aurreratze gradua
1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak	(% 9,09)	1.2.1. Argitalpenak, iragarkiak, publizitate kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak	80,00
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.	80,00
		Deialdi eta ekitaldietan hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da. Ekitaldien antolamendu fasean hizkuntza trataera zehatza definituko da aldibereko interpretazioaren beharrak barne.	80,00
5.1. Administrazioa	(% 45,46)	5.1.1. Administrazioekiko idatzizko harremanak	100,00
		5.1.2. Administrazioekiko ahozko harremanak	100,00
		Diru laguntza eta hitzarmenak arautzen dituzten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.	100,00
		Diru laguntza arautzen duten oinarrietan hizkuntz irizpideak txertatuko dira eta haien jarraipena egingo da.	100,00
5.3. Bestelako harremanak: aliatuak, taldeko enpresak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	(% 45,46)	5.3.1. Beste entitateekiko idatzizko harremanak	50,00
		5.3.2. Beste entitateekiko ahozko harremanak	50,00
		Proiektuaren komunikazio atalean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da.	100,00
		Hizkuntza irizpideak finkatuko dira proiektuaren kanpo kudeaketan.	72,50

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	3-OSASUNA ETA ONGIZATEA Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.	1.689.490,50	
	4-KALITATEZKO HEZKUNTZA Guztiontzako kalitatezko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea.	1.689.490,50	
Guztira		3.378.981,00	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA			
Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	290.331,00	127.118,66	43,78
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	3.088.650,00	3.119.981,34	101,01
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.378.981,00	3.247.100,00	96,10
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital			
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS			
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras			
Guztira / Total	3.378.981,00	3.247.100,00	96,10

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL				
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	127.118,66			
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	3.119.981,34			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.247.100,00			
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital				
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	3.247.100,00			
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	96,10			

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA				
Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS				
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS				
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	3.378.981,00	3.247.100,00	96,10	27.500,00
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.378.981,00	3.247.100,00	96,10	27.500,00
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital				
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	3.378.981,00	3.247.100,00	96,10	27.500,00